## IKASTOLARA JOATEKO GARRAIOBIDEAK







Denok behar izaten dugu moduren bat etxetik ikastolara joateko. Baina zein dira gehiena erabiltzen ditugun garraiobideak? Nola egiten dugu eguneroko joan-etorria? Mendipe ikastolakoek gaia aztertu eta 5.mailako ikasleei galdetu diete.

Azterketa horren arabera, **bai** ikastolatik hurbil bizi direnek, **bai** urrun bizi direnek, oinez joan nahi lukete. Eguraldi txarra egiten duenean, **ordea**, multzo batekoek zein bestekoek ibilgailu motordunak erabiltzen dituzte (autoa eta autobusa). Ikasle guztiek badute bizikletaren bat.

Urrun bizi direnek, **ostera**, gehiago erabiltzen dute txirrindua. **Den-denek** esaten dute patinetez joatea ere guztatzen zaiela. Autobusez joaten diren ikasle guztiek nahiago luketa ikastolatik gertuago bizi. Oro har, **hala ere,** gertu bizi nahiz urrun bizi, oinez nahiz autobuses joan. Mendipe ikastolako 5. Mailako ikasleek esaten dute goizetan erdi lotan joaten direla ikastolara!

**Irakurri ondoren testua, azaldu idatziz ea zu ikastolatik urrun edo hurbil bizi zaren eta zein garraiobide erabiltzen duzun ikastolara joateko.**